

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak, pasaden urtearekin alderatuta, 116 milioiko superabitarekin eta 187 milioiko zorrurriketarekin itxi du 2018ko ekitaldia

Aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete dira, eta Nafarroako Gobernuaren estimazioen arabera, KPIren % 2,4an zehaztutako gastuaren araua ere bai.

Ostirala, 2019.eko otsailak 8

Nafarroako Gobernuak aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betez amaitu du 2018ko ekitaldia, hots, 116 milioi euroko superabitarekin (KPIren % 56a), eta KPIren % 16,8ko zorrarekin, zehaztutako % 17,7ko mugaren azpitik. Zorpetzea 3.441 milioi eurokoa da, gehienez onartutakoaren 202 milioi azpitik, eta 2008az geroztik zorra murriztea lortu da lehenbizikoz, aurreko urtearekin alderatuta 187 milioitan hain zuzen. Gastu arauari dagokionez, behin betiko datuak ez ditugu urrira arte ezagutuko, baina Nafarroako Gobernuak balioetsi du % 2,4ko helburua bete dela.

Horrela iragarri du Mikel Aranburuk Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak, eta, aldi berean, azpimarratu du zorra murriztea zeinen garrantzitsua den etorkizuneko belaunaldiek zama hori jasan beharrik ez izateko. Jakinarazi du azken 10 urteotan zorrak goraka egin badu ere, legealdi honetan gelditu egin dela, eta, gainera, 2018an murriztea lortu dela aurreko urtearekin alderatuta. 2008az geroztik ez da horrelakorik gertatu.

Aranburuk 2018ko itxierako [datuak](#) positiboki baloratu ditu, “kontu saneatuak” erakusten dituelako eta “zehaztasunez kudeatuz gero, kontu publikoen jasangarritasuna eta gastu sozialerako baliabideak areagotzea bateragarriak izan daitezkeelako”. Esaterako, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Eskubideetarako partida 2015ean baino 384 milioi euro handiagoa da. Ildo horretatik, Aranburuk gogoratu du 2018an gastuaren sabaia pasadan urtekoa baino % 4,26 eta 2015ekoa baino % 15,5 handiagoa dela.

Behin-behineko datuak dira, eta behin betikoak maiatzean osatuko dira azkeneko ohar eta ikuskaritzekin. Edonola ere, aldaketa txikiek ez diote superabitaren portzentajeari eta KPIren gaineko zorrari eragingo. Gastu araua, bestalde, urrira arte ez da zehaztuko.